



EHUNGINTZA OSAGARRIAK – Oinarrizko maila

Prozedura irekiaren bidez eta lehiaketagatiko esleipen bidez kontratatzeko ingurumen irizpideak

1. Kontratuaren xedea eta espezifikazioak

1.1. Kontratuaren xedea

1. Koadroa

Kontratu honen xedea da jantziak gizarte- eta ingurumen-irizpideen arabera erostea [zehaztu jantzi-mota: zapiak, poltsak, etab.]

1.2. Esleipen-irizpideetan bete beharreko zehaztapen teknikoak eta zehaztapen baloragarriak

2. Koadroa

Bidezko Merkataritzari eta Garapenari buruzko Europako Parlamentuaren Ebazpeneko parametroak betez ekoitziak izan behar dute erositako produktuek (A6-0207/2006).

Produktuek duten honako zuntz hauen portzentajea balioetsiko da:

- Nekazaritza ekologikoko zuntz naturalez egindako produktuaren portzentajea pisuan, estandar hauen arabera: Europar Batasuneko mailan 834/2007 araudia (EE); AEBko Nekazaritza Saila-USDARENak (*National Organic Program*-en arabera) edo nazioarteko IFOAM erakundearena edo horren baliokideena.
- Ehungintza-industriako ebakinetatik, jantzigintzatik edo kontsumitu ondoko hondakinetatik eratorritako zuntz birziklatuak.

2. Esleipen irizpideak

Esleipen-irizpideetan, elementu baloragarri bakoitzari ezarriko zaion haztapena zehaztu behar da. Oro har, esleipenean ingurumen-irizpideek garrantzi nahikoa izan dezaten, % 15-20 ingurukoa izan beharko luke, gutxienez, horren guztizko haztapenak.

Ekitaldietarako ehungintza-osagarriak ingurumen-irizpideen arabera erosteko, honako hauek balioetsi daitezke:

3. Koadroa

Eskaintako produktuak dituen nekazaritza ekologikoko zuntzen eta/edo zuntz birziklatuen guztizko portzentajea [produktu bat bakarrik bada], % 20raino.

Produktu ezberdin bat baino gehiago erosiz gero, produktu bakoitzari ezarri behar zaizkio balorazio-irizpideak (kopurua kontuan hartuta, ez kantitatea) eta produktu ezberdinen guztizkoari egokitu, edo, bestela, produktu guztien guztizkoari (pisua) ezarri, hau da, produktu bakoitzaren kopuruari eta kantitateari. Irizpidea edozein delarik ere, baldintza-orrian zehaztu behar da.

3. Eskaintza teknikoaren edukia: eskaintza-aurkezpena

Eskaintzen eta aurkeztutako agirien ebaluazioa errazteko, agiriak aurkezteko modu jakin bat eskatu behar da baldintza-agirian. Informazio hori lehiaketa-deialdian zehaztu behar da, eskaintzaileek garaiz izan dezaten.

4. Koadroa

Eskaintzaileak agiri hauek aurkeztu behar ditu, honela:

1. **Ingurumen-eskakizunen egiaztapen-zerrenda**¹ behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta. Horrekin batera, nahitaezko irizpideak eta irizpide baloragarriak (eskaintzaileak hartutako konpromisoak) bermatzen dituzten **egiaztagiri guztiak** aurkeztu behar dira.

Baldintza-agirian ezarritako estandarrak eta bestelako egiaztagiri batzuk baliokideak direla frogatzea eskaintzaileari dagokio; horretarako, baliokidetza hori erakusten duten azterlan teknikoak aurkeztu beharko ditu.

¹ Kapitulu honetako «Hornitzaileentzako checklista» dokumentua ikusi.

Eskuragarri: <http://www.ihobe.eus/> > Jarduera eremuak > Erosketa Publiko Berdea